



## **2010EKO MAIATZAREN 12KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko maiatzaren hamabian, arratsaldeko seietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo eta Xanet Barreras Jauregi.

Iñaki Saldaña Herrero zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

### **I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztzen da 2010eko apirilaren 14an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

### **II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2010eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 4 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERREHUN ETA HOGEITA HEMERETZI MILA EHUN ETA LAUROGEI-TA HAMALAU EURO ETA HOGEITA HAMASEI ZENTIMO (239.194,36 €, -)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

### **III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:

#### **Etxe Laguntza Zerbitzua.-**

10-11-004 zbk.dun esped.: osasun egoera okertu zaiola eta, zerbitzua handitzea, maiatzaren 10ean hasita, astean 3 orduetik astean 6 ordura. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15 izango da.

#### **Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-**

- 825 zbk.dun esped.: alokairu gastuetarako ematen zaiona hilean 291,20€ra aldatzea. Ematen zaiona eskatutakoaren %91 da.

#### **Ifarra-Hegoa lankidetza programa.-**

2010 urteko Ifarra-Hegoa Lankidetza Programan egon diren eskaerak aztertu ondoren, Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena ikusita, Tokiko Go-



bernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, ondorengo dirulaguntzak onartzea erabakitzen du:

<u>ESKATZAILEA</u>	<u>PROIEKTUA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>
Padres Paules. Parroquia San Vicente de Paul	Bethania etxea, zentru geriatrikoa.	4.200,00 €
Karitas	Abere eta nekazaritza etxea N'Dalin (Benin) elizbarrutiko ospitalarekin lotutakoa.	6.280,00 €
Donostiako Elizbarrutiko Misio Ordezkaritza	Giharan (Rwanda), herri eskolan zenbait zerbitzu osagarri eraikitzeko egitasmoa.	15.500,00 €
Monja Zistertarrak	San Daniel zentru hezitzailea.	6.280,00 €
Prelatura de Cametá	Goazen dentistarengana	3.175,00 €
Herrian elkarlanean	Haitirako larrialdiko laguntza	10.000,00 €
Asociación Paz Ahora	Bakearengatik oporrak	3.000,00 €

#### IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:

##### Lazkaotxiki Musika Eskola.-

2010eko dirulaguntzatik lau mila euroko (4.000 €) hirugarren zatia ordaintzea.

##### Goierrri Telebista.-

Aurreko urteko hitzarmena ontzat eman eta biztanleko 2 euroko dirulaguntza onartzea, guztira hamar mila laurehun eta sei euro (10.406 €). Onartzen den dirulaguntza hau bi zatitan ordainduko litzateke, lehen zatia, 5.203 euroko orain ordainduz eta beste erdia azarora aldera.

#### V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

